



---

## PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

---

### 59 urteko langile bat hil da Aianox enpresan, ondoezak jota

Orozkoko 59 urteko langile baten lan heriotzaren berri izan dugu. Hain zuzen ere, Murga herriko Aianox enpresan lanera sartu eta gutxira, goizeko 6:00ak pasata, gaizki sentitu eta bertan zendu da. Lan heriotz ez traumatikoa izan da, beraz; bihotzekoak jota, antza denez.

Gaurko heriotza honekin, gutxienez 71 langile hil egin dira Euskal Herrian urtea hasi zenetik, eta Joaquin Beltranek desagertuta jarraitzen du Zaldibarreko zabortegian, otsailaz geroztik.

Lehenik eta behin, LAB sindikatutik hildakoaren senide eta lankideei gure elkartasuna eta babesa helarazi nahi dizkiegu. Istripu ez traumatikoak ere lan istripu dira. Ez dira kasualitatez izaten lan orduetan, eta ez dira zorte txarraren ondorio, enpresariak esaten duten bezala. Jakina da lan baldintza txarrak, presioak eta estresa direla bihotzeko istripuak sortzen dituzten faktore nagusienetakoak.

Gainera, dagoeneko istripu ez traumatikoak, bihotzekoak eta iktusak, bilakatu dira heriotza eragin duten lan istripuen lehenbiziko gauzatzaileak. 2020 urtean hildakoen langileen %25a istripu ez traumatikoen ondorioz hil da.

Lan istripu guztien atzetik lan baldintza eta lanaren ezaugarriak daude; azpikontratazioa, erritmo azkarrak, presioa, autoritarismoa... gaixotasunak sortu eta batzutan langileak heriotzara eramaten dituztenak.

Argi daukagu lan istripuak, traumatiko, ez traumatiko eta joan etorrikoak, ez direla zoriak edo kasualitateak sortuta, ematen diren lan harremanen, prekarietatearen, lan arautegiaren eta azpikontratazioaren emaitza baizik.

LABen argi dugu bizitza eta enplegu duinak behar ditugula, lanetik onik eta bizirik bueltatzeko eskubidea dugulako. Hau edo beste edozein lan-istripu ez dira gertakari isolatuak, langile-klasearen osasunaren eta bizitzaren aurretik ekonomia jartzen duen eredu produktiboaren isla dira.

Lan heriotzekin bukatzeko bide bakarra borroka eta antolakuntza dira. Lan harremanen eta joku arauen aldaketa batetik etorriko da aldaketa. Norabide-aldaketa behar dugu, hortaz; eredu berri bat, langileon bizitza eta osasuna lehenetsiko dituena. Horregatik, LABetik dei egiten diegu langileei lan-baldintza duinen alde borrokatzera.

Gasteiz, 2020ko abenduaren 29an